



SINATZAILEA

Igantzi Alkatea
JUAN CARLOS UNANUA NAVARRO
2025/06/02



Ayuntamiento de **Igantzi**
Igantzi Udaia

NIF: P3125900E

PERTSONALA

Espedientea 221848Y

ZERBITZU ANITZETAKO ENPLEGATU LANPOSTUA LEHIKAETA-OPOSAKETA BIDEZ BETETZEKO ETA ORDZKAPENAK, BAJAK EDO ERREFORTZU BEHARRAK KONPONTZEKO IZANGAIEN ZERRENDA ERATZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEA.

Ikusirik 2025eko maiatzaren 29ko 107. Nafarroako Aldizkari Ofizialean Igantziko Udaleko lan publikoaren eskaintza argitaratu zela ondorengo lanpostua betetzeko:

- Funtzionarioa. Plaza kopurua: bat (1). Lanpostua: zerbitzu anitzetako enplegatua. D maila. Lanaldia: %100. Hizkuntza-eskakizuna: B2 ahoz eta B1 idatziz. Sartzeko sistema: oposizio-lehiaketa. Betetze aurreikuspena: 2025-2026.

Ikusirik idazkariak Igantziko Udalaren zerbitzura dagoen zerbitzu anitzetako enpleguaren lanpostu huts bat lehiaketa-oposizio bidez betetzeko eta ordezkapenak, bajak edo errefortzu beharrak konpontzeko izangaien zerrenda eratzeko deialdiaren oinarri arautzaileak prestatu dituela.

Ikusirik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.g) artikuluan xedaturikoa.

EBATZI DUT:

- 1) Igantziko Udalaren zerbitzura dagoen zerbitzu anitzetako enpleguaren lanpostu huts bat lehiaketa-oposizio bidez betetzeko eta ordezkapenak, bajak edo errefortzu beharrak konpontzeko izangaien zerrenda eratzeko deialdiaren oinarri arautzaileak onartzea.
- 2) Onarturiko deialdiaren iragarkia, dagokion oinarriekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.
- 3) Ebazpen hau, onarturiko deialdia eta dagokion oinarriak udalaren webgunean argitaratzea.



SINATZAILEA

Igantzi Idazkaria
MAGORE MADARIAGA IRIARTE
2025/06/02



IGANTZI

Egiaztapen-aseguru kodea: CFCA AAJ7 QUFX XKEY EN7K

Resolución Nº 87 de 02/06/2025 "ZERBITZU ANITZETAKO ENPLEGATU LANPOSTUA LEHIKETA-OPOSAKETA BIDEZ BETETZEKO OINARRIAK ONARTZEA" - SEGRA 78582

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedelectronica.igantzi.eus/> 1tik 1 orrialdea